

## 1. Balorezko proposamena

"DeliciAuto" guk sukaldatutako sukaldaritza esperientza bakarragatik, prezio baxuengatik eta ibilgailu elektrikoak erabiltzeagatik bereiztuko da. Gure enpresan janaria eskatzea ideia ona da zeren askotan ez dugu denborarik sukaldatzeko, nagia ematen digu edota adin nagusiko pertsonentzat egokia izango litzateke horrela ez lukete inori kontratatu behar edo familiako bati molestatu. Alferrik ez galtzeko, normalean supermerkatuetan baztertutako elikagaiak erabiliko ditugu, horrela, zaborra ekidituko dugu. Izan ere, ez ditugu hondakin askorik sortuko eta baliabideak guztiz aprobetxatzatuko ditugu. Motor elektrikoak ere erabiliko ditugu ez dutelako ohiko gasolinazko motorra bezain beste kutsatzen eta ingurumena ez dute hainbeste kaltetzen.

Ibilgailu elektrikoen aldeko apustua egitean, jarduera jasagarriekin eta entrega eraginkorrekin dugun konpromisoa berresten dugu, elikagaien entregaren industriaren barruan "DeliciAuto" lider bihurtuz berrikuntzaren arloan.

Mugikortasun arazoak dituztenentzat, batez ere adinekoentzat, menu espezifiko bat diseinatuko dugu, gosaria, bazkaria eta afaria barne, etxean zuzenean emateko erosotasunarekin.

Gure ordutegia hurrengoa izango da: gosariak goizeko 8etatik 10etara, bazkariak 12etatik arratsaldeko 3etara eta afariak arratsaldeko 8etatik 12etara prestatuko eta banatuko ditugu. Hala ere, informazioa izateko, erreserbak egiteko edo zalantzak galdetzeko 24 ordu izango gara mezuak erantzuteko.

Ez gara elikagaiak ematera mugatuko; gure bazkideen eguneroko bizitzaren funtsezko zati bat izan nahi izango dugu. Gainera, haurrentzako menu orekatu bat eskainiko dugu, aukera nutritibo eta goxoak eskainiko ditugula ziurtatuz.

"DeliciAuto" -rekin bat egitea are bereziagoa egingo duena gure fideltasun programa eskusiboa izango da. Bazkide bihurtzean, gure janari goxoez gozatzeko doako garraioa ez ezik, deskontu baliotsuak ere jasoko dituzte, sukaldaritzako esperientzia bakoitza are atseginagoa izan dadin.

Gure fideltasun programa apartekoa izango da, eta gure bazkideen gogobetetasunean pentsatuz diseinaturik egongo da. Erosketa bakoitzak deskontu bereziak eta doako errazioak desblokeatuko dituzten puntuak emango ditu, gure proposamen gastronomikoen aukera zabala aztertzekeo pizgarriak eskainiz.

Funtsezkoa da azpimarratzea doako garraioa gure bazkideentzat bakarrik izango dela, eta "DeliciAuto" komunitateko kide aktibo izatea erabakitzen dutenei onura bereizgarriak emateko konpromisoa indartuko dugula. Elikagaiak emateaz gain, gure

bazkideekin konexio berezi bat eraiki nahi izango dugu, lehentasunezko tratua eskainiz. Gure egitura operatiboaz eta elkarte estrategikoez gain, hunkituta gaude partekatzeaz "DeliciAuto"-k urrats esanguratsua emango duela motorra elektrikoa eskuratzeko jasagarritasunerantz eta eraginkortasunerantz. Ibilgailu honek, gure karbono-aztarna murrizten laguntzeaz gain, gure entregen eraginkortasuna hobetuko du, zerbitzu azkarragoa eta ingurumenarekiko begirunetsuagoa eskainiz.

Egitura berritzaile horrek aukera bakar eta lehiakor gisa kokatuko gaitu etxez etxeko entregen merkatuan, eta, aldi berean, komunitate sendo eta konprometitu bat eraikiko dugu. "DeliciAuto"-en, kalitatezko sukaldaritza esperientzia ez ezik, gure bazkideentzako komenigarritasunaren, kalitatearen eta aurrezpen ekonomikoaren sinonimo izango den elkarte bat ere eskaini nahi izango dugu.